

AKTA

ZEHAZTASUNAK • IDENTIFICACIÓN DE LA REUNIÓN

Bilera Reunión	Informazio saioa Sesión informativa			Bilera-zenbakia Nº de sesión	2
Tokia • Lugar	Osoko bilkuren aretoa / Salón de plenos				
Eguna • Día	2020-12-10	Hasiera-ordua Hora inicio	18:30	Amaiera-ordua Hora finalización	19:10

Bertaratuak • Asistentes

Herritarrak / Ciudadanía

Udal ordezkariak / Representación municipal:

Parte-hartze saileko teknikaria ere badago.
Asiste, asimismo, el técnico de participación,

AZTERGAIK • ORDEN DEL DÍA

BAKARRA.- Haurreskolaren prozesu parte-hartzailearen alternatibak baloratzea eta, hala badagokio, proposena hautatzea.

ÚNICO.- Valorar las alternativas del proceso participativo de la haurreskola y seleccionar la más adecuada, en su caso.

Lehenik eta behin, udal-ordezkaritzak eskerrak eman dizkie bertaratutako pertsoneri, eta parte hartzeko prozesuaren eta, bereziki, saio honen dinamika aurkeztu eta azaldu du. Horren helburua izango da parte hartzeko prozesuaren alternatibak baloratzea eta, hala badagokio, egokiena hautatzea. Aurreko saioan landutakoari buruz laburbildu da, bertan jasotako aurretiazko iritzien berri eman da eta planteatutako aukeren indarguneak eta ahulguneak azaldu dira.

Azalpena amaitu ondoren, bertaratutakoek esan dute nahiko argi dutela aukerarik egokiena zein den. Ez dago zalantzarik zer ez duten nahi. Lapurdiko aparkalekuaren aukera onena dela adierazi dute, kantxa anitzekoa ere ez dagoela gaizki, baina gabeziak dituela.

Udal ordezkariak Lapurdiko aparkalekuaren aukera egikaritzeko epeak errepikatzen ditu, eta Haur Eskolan interesa duten pertsonen Lapurdiko gainerako espazioaren definizioan parte hartu beharko luketela adierazi du. Argi dago Lapurdiko aparkalekua dela aukera gogokoena, hala ere Katamar Haurreskola sustatu behar dela eta, edozein arrazoi dela medio, Lapurdiko aukera gauzatu ezin bada, kantxa anitzeko aukera egokiena izango litzatekeela, betiere solairu bakar batean eta irisgarria bada.

Beraz, proiektu arkitektonikoa taxutzea tokatuko litzateke, une honetan bertan ideia batzuk jasoz, obrak lizitatzen diren unean kontratistari interesdunen iritzia berriz jasotzeko eska dakiokkeen arren.

Bertaratutakoek adierazi dute uste dutela 6 gela nahiko izango lirатеkeela, eta ondo legokeela sarrera handitzea egungoaren aldean, bai eta haren eremu estalia ere. Gurditxoentzako “aparkalekua” ere interesgarria izango litzateke. Aldagela handiagoak eta bilera-gela duin bat eskatzen dituzte. Eraikin berriak psikomotrizitate-gela izan behar duela adierazi dute. Egungo officearen tamaina egokia da, baina horiek dituzten geletako jantokiak handitu beharko lirатеke. Aireztapena oso garrantzitsua dela azpimarratu dute eta patiorako zerbait originala eskatu dute.

Udal ordezkariak ondorioztatzen dute mandatu argia dela Lapurdiko aparkalekuaren aukerari dagokionez, eta, beraz, proiektu arkitektonikorako ideiak saio honetan bertan jaso direnez, amaitutzat eman daiteke parte-hartze prozesu hori. Guztien ekarpenak eta parte-hartzea eskertu dituzte, eta uste dute inplikaturako eragile guztiak ados egongo direla.

Bertaratutakoek eskertu egin dute entzun izana, eta adierazi dute 2015etik asko jasan dutela.

Eta aztertze besterik ez zegoenez, bilkura amaitutzat eman zen.

En primer lugar la representación municipal agradece la presencia de las personas asistentes, hace la presentación y explica la dinámica del proceso participativo y de esta sesión en particular, la cual tendrá por objeto el valorar las alternativas del proceso participativo y seleccionar la más adecuada, en su caso. Se recapitula sobre lo tratado en la sesión anterior, se da cuenta de las opiniones preliminares recogidas en la misma y se exponen las fortalezas y debilidades de las alternativas planteadas.

Una vez concluida la exposición, las personas asistentes comentan que tienen bastante clara la alternativa más adecuada. No hay duda sobre lo que no quieren. Manifiestan que la opción del parking de Lapurdi es la mejor, que la de la multicancha tampoco está mal pero que tiene sus carencias.

La representación municipal reitera los plazos de ejecución de la alternativa del parking de Lapurdi y comenta que las personas interesadas en la haurreskola deberían participar en la definición del resto del espacio de Lapurdi. Queda claro que el parking de Lapurdi es la opción preferida, que aun así es necesario fomentar la haurreskola Katamar y que si por cualquier circunstancia la opción de Lapurdi no pudiera materializarse, la alternativa de la multicancha sería la más adecuada siempre que fuera en un solo piso y accesible.

Por tanto, tocaría ya entrar a perfilar el proyecto arquitectónico recogiendo una serie de ideas en este mismo instante, sin perjuicio de que al momento de la licitación de las obras se exija del contratista que vuelva a recabar la opinión de las personas interesadas.

Las personas asistentes indican que creen que 6 aulas serían suficientes, estaría bien ampliar la entrada respecto de la actual, así como la zona cubierta de la misma. También sería interesante un “parking” para los carros. Solicitan unos vestuarios más grandes y una sala de reuniones digna. Indican que el nuevo edificio debe contar con aula de psicomotricidad. El tamaño del office actual es adecuado, pero se deberían ampliar los comedores de las aulas que dispongan de ellos. Subrayan que la ventilación es muy importante y piden algo original para el patio.

La representación municipal concluye que el mandato es claro respecto de la opción del parking de Lapurdi, por lo que, habiendo recogido las ideas para el proyecto arquitectónico en esta misma sesión, se puede dar por terminado este proceso participativo. Agradecen las aportaciones y participación de todos y todas y creen que todos los actores implicados estarán de acuerdo.

Las personas asistentes agradecen que se las haya escuchado y manifiestan que desde 2015 han soportado mucho.

Y sin nada más que tratar se dio por finalizada la sesión.